



COVID-19 DELA ETA, UDAN EUSKARAZ KANPAINA EGOKITZEKO PLANA

NEURRIAK

1. Transmisioa kontrolatzea eta prebenitzea.

- COVID-19 dela eta, legezko tutoreek euren gain hartuko dute adingabeen erantzukizuna; hala, haur batek COVID-19rekin lotutako sintomak baditu, ez dute jarduerara eramango eta horren berri emango diote kanpainaren koordinatzaileari.
- Begiraleek ahalegin berezia egingo dute jarduera segurua izan dadin. Horretarako, haur bat jardueran onartu aurretik haren osasun-egoeraz galdetuko diote senideei, eta ezarritako protokolo eta segurtasun-arau guztiak beteko dituzte.
- Mezuak eta kartelak jarriko dira, segurtasuna bermatzeko jarrerak eta distantziak gogorarazteko, baita higiene-neurriak eta beste neurri batzuk ere.

2. Nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea

- Fase guztietan ezarritako nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzen direla bermatuko da kasu guztietan. Aplikatu beharreko araudiaren arabera, gerta daiteke fase guztietan nahitaez errespetatu behar izatea higiene- eta prebentzio-neurri hauek: Jarduerak gehienez 10 laguneko talde isolatuetan egingo dira, eta begirale batek gainbegiratuko ditu une oro; ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; maskara nahitaez erabili beharko da leku itxietan, eta leku irekietan segurtasun-distantziari eutsi ezin zaionean; eskuak garbituko dira jarduera bakoitza egin aurretik eta ondoren. Neurri horiek Espainiako Gobernuak eta/edo Nafarroakoak fase bakoitzerako ezartzen dituzten neurrien mende egongo dira.
- Neurri higienikoak eta urruntze sozialekoak borondatez eta behin eta berriz betetzen ez dituen jardueratik kanporatuko da bi egunez. Behin eta berriz errepikatuz gero, kanpaina osorako kanporatuko da.

3. Jarduerak egokitzea eta berrantolatzea

- Aire zabalean egindako jarduerari emango zaie lehentasuna.
- Talde bakoitzak eskolako gela bat izango du, erabilera eksklusibokoa.
- Talde bakoitzean gehienez ere 10 parte-hartzaile egongo dira, monitorea barne.
- Ez da talde berririk egingo aurrekoak nahastuta.
- Eskolako patiora joango da, eta segurtasun-distantzia errespetatuko da. Parte-hartzaile bakoitza adierazten zaion patioko tokira joango da.

- Neska-mutilei zein taldetakoak diren jakinaraziko zaie. Begirale arduradun bat esleituko da talde bakoitzeko, eta haren ardurakoa izango da adingabeak jaso eta haien legezko tutoreei entregatzea.
- Neska-mutilak euren monitorearekin bilduko dira jarduera hasteko esaten zaien patioko tokian. Begiraleak urruntze sozialerako neurriak errespetatzen direla zainduko du.
- Eskola barrura sartzeko, Udalak emandako plastikozko oinetakoak erabiliko dituzte pertsona guztiek.
- Ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; maskarak nahitaez erabili beharko dira leku itxietan, eta leku irekietan segurtasun-distantzia mantendu ezin denean.
- Parte-hartzaile bakoitzak bere maskara, hamaiketakoa eta ura ekarriko ditu. Horiek ez dira inorekin partekatuko.

4. Jarduera gauzatzeko baldintzak

5.1-Kanpainaren aurreko informazioa eta komunikazioa:

- Familiek programa egungo egoerara nola egokitu azaltzen duen dokumentu hau jasoko dute, bai eta arrisku edo kutsatze positiboko kasuetan prebenitzeko eta jarduteko protokoloa ere.
- Parte hartzeko baldintzak, informatzeko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentua (legezko tutoreek sinatu beharrekoa)

5.2. Kanpaina gauzatu bitartean:

- Begiraleek prebentzio-neurriak gogorarazi eta betetzeko eskatuko dute, betiere pertsona guztien onerako eta segurtasunerako (gainazalak ez ukitzea, segurtasun-distantzia mantentzea, beharrezkoa denean maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea eta abar). Halaber, instalazioak nola erabili jakinaraziko diete parte-hartzaileei (komunak, ikasgelak).
- Kontaktua fisikoa dakarten agurrak saihestuko dira.
- Ahaleginak egingo dira parte-hartzaileen eta monitoreen artean materiala ez partekatzeko.

5.3. Jardueraren ondoren

- Begiraleek erabilitako babes-materialak toki egokian botatzen direla zainduko dute.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMATZEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEKO DOKUMENTUA

Seme-alabek Udan Euskaraz kanpainan parte hartzea nahi duten familiek idatziz eta alde zuzenetik onartu beharko dituzte baldintza hauek:

- 1. Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldearekin bizi ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena.** Honako kasu hauetan har daiteke parte-hartzailea arrisku-taldeko kideztat:
 - Parte-hartzaileak ezin izango du jardueran parte hartu baldin eta COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
 - Parte-hartzailea ezin izango da jardueran aritu baldin eta kontaktu estuan egon bada gutxienez 15 minutuz 2 metrotik beherako distantzian sintomak zituen pertsona batekin edo haren bizikideekin edo senideekin, edo COVID-19 duen pertsona batekin egon bada pertsonen arteko distantzia gorde gabe, baita sintomarik egon gabe ere, gutxienez ere 14 egunez. Denbora-tarte horretan, jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzurik agertzen ote den jakiteko.
 - Parte-hartzaileak jardueran parte har dezake, baina ez luke parte hartu behar, baldin eta kaltebera bada edo pertsona kaltebera batekin bizi bada (60 urtetik gorakoa izateagatik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, biriketako gaixotasun kronikoa, minbizia, immunoeskasia diagnostikatuta izateagatik, edo haurdun egoteagatik edo aurreko gaixotasun medikoak izateagatik). Familiak parte hartzea erabakitzen badu, baimen informatuan jasota utzi beharko du jakin badakiela familiak edo senideek zer arrisku duten.
- 2. Osasun-egoera eta jarduerara ez bertaratzeko arrazoiak egunero jakinarazteko konpromisoa**
 - Haurren familiek egunero eman beharko diote haurren osasunaren berri beren taldearen koordinatzaileari edo begirale arduradunari, mugikorraren edo beste bitarteko baten bidez, eta betiere haurra jardueran hasi aurretik.
 - Haurren senideek beren taldeko begirale arduradunari jakinarazi beharko dizkiote jarduerara ez bertaratzeko arrazoiak, mugikorraren edo beste bitarteko baten bidez.
 - Jardueran parte hartzen ari den pertsonaren batek COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu, ez da jarduerara joango eta koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.
- 3. Nahitaez bete beharreko higiene eta prebentzio neurri pertsonalak jasotzen dituen dokumentua onartzea**
- 4. Baimen informatuaren sinadura**

UDAN EUSKARAZ 2020 KANPAINAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMATZEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEKO DOKUMENTUA

.....jauna/andrea (NAN zk.:
.....)

.....ama/aita/tutorea naizen aldetik,

Talde kaltebera bateko edo egokitzeko behar bereziak dituen talde bateko kidea da: Bai / Ez.

Hala bada, zehaztu:

Nire erantzukizunpean eskatzen dut goiburuan ageri diren datuak dituen adingabeak parte har dezala Udan Euskaraz 2020 kanpainan. Hori dela eta, arreta osoz irakurri dut erakundeak berak emandako informazioa, eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut, nahitaezko higie-ne eta prebentzio-neurri pertsonalekiko konpromisoa adierazten dut, eta erantzukizun osoa hartzen dut COVID-19k kutsatzeko aukeraren aurrean.

(Markatu dagokiona)

| | |
|---|---|
| Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldearekin bizi ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena | |
| <input type="checkbox"/> | Aitortzen dut nire semeak edo alabak guztiz betetzen dituela parte hartzeko baldintzak, informatzeko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentuan ezarritako onarpen-baldintzak, eta ez dela arrisku-talde bateko kidea. |
| <input type="checkbox"/> | Aitortzen dut nire semea edo alaba ez dela bizi arrisku-talde bateko kidea den inorekin, edo, hala bada, nire erantzukizunpean parte hartzen duela jardueran. |
| <input type="checkbox"/> | Nire semearen edo alabaren osasun-egoera eta, hala badagokio, ez bertaratzeko arrazoia egunero jakinarazteko konpromisoa hartzen dut (mugikorraren bidez edo beste bideren baten bidez). |
| COVID-19ri aurre egiteko nahitaez bete beharreko higie-ne eta prebentzio neurri pertsonalak jasotzen dituen dokumentua onartzea | |
| <input type="checkbox"/> | Nahitaezko higie-ne eta prebentzio neurri pertsonalen dokumentuan jasotako konpromisoak irakurri eta onartzen ditut. |
| Jarduera COVID-ek eragindako egoerara egokitzeari buruz entitateak emandako dokumentuak irakurri eta onartu izanaren adierazpena | |
| <input type="checkbox"/> | Aitortzen dut Udan Euskaraz kanpaina COVID-19k eragindako egoerara egokitzeko protokoloa jaso eta irakurri dudala, eta, beraz, ezagutzen dudala eta bat natorrela proposatzen dituen neurri eta prozedurekin. |

| | |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> | Aitortzen dut jaso eta irakurri dudala larrialdi edo kutsatzeko arrisku kasuetan jarduteko protokoloa. |
| COVID-19ri buruzko baimen informatua | |
| <input type="checkbox"/> | Aurreko dokumentuetan jasotako informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, aitortzen dut jakin badakidala, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren testuinguruan, Udan Euskaraz programan parte hartzeak zer-nolako arriskuak dakartzan nire seme-alabarentzat eta berarekin bizi direnentzat, eta arrisku hori neure gain hartzen dudala, neure erantzukizunpean. |
| | |

Olaztin,(a)ren.....(e)an

Sinadura:

PARTE-HARTZAILEEK NAHITAEZ BETE BEHAR DITUZTEN HIGIENE- ETA PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Zure semeak edo alabak ez du jarduerara joan behar, baldin eta

- COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Kasu horretan, Nafarroako COVID-19ren arretarako telefonoarekin jarri behar da harremanetan, eta haren jarraibideak jarraitu. Ez joan pertsona gehiago dauden lekuetara, harik eta egiaztatzen den arte ez dagoela arriskurik zure seme-alabarentzat edo gainerakoentzat.
- Kontaktu estuan egon bada gutxienez 15 minutuz 2 metrotik beherako distantzian kasuak zituen pertsona batekin edo haren bizikideekin edo senideekin, edo COVID-19 duen pertsona batekin egon bada pertsonen arteko distantzia gorde gabe. Kasu horretan, jarraipena egin behar da, 14 egunez gaixotasunaren zantzurik agertzen ote den jakiteko.
- Zure erantzukizunpean parte har dezake kanpaina, kaltebera bada edo adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko gaixotasun medikoak izateagatik kaltebera den pertsona batekin bizi bada (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa). Nolanahi ere, jakin ezazu horrek arrisku larria ekar diezaiokeela zure semeari edo alabari edo berarekin bizi diren pertsoneri.

2. Joan-etorriak:

- Ahal den guztietan, lehenasuna eman behar zaie 2 metro inguruko pertsonen arteko distantzia hobekien bermatzen duten mugikortasun-aukerei.
- Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea etxetik irteten denetik.

3. Jarduera egin bitartean:

- Ez dira ez hamaiketakoak, ez ur-botilak partekatuko.
- Parte-hartzaileek maskara garbi bat izan beharko dute eguneko. Haurrek etxetik ekarri beharko dute maskara.
- Ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; maskarak nahitaez erabili beharko dira leku itxietan, eta leku irekietan segurtasun-distantzia mantendu ezin denean.
- Eskuak maiz garbituko dituzte urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholiko batekin, 40 segundoz. Bereziki garrantzitsua da ez tul edo doministiku egin ondoren, edo espazio partekatuetako jardueren hasieran eta amaieran. Jardueran zehar besaurreak agerian izanez gero, komeni da horiek garbitzea.
- Estali sudurra eta ahoa ez tul eta doministiku egitean erabili eta botatzeko zapi batekin, eta, ondoren, bota itxitura duen zabor-ontzi batera. Zapirik ez baduzu, erabili ukondoaren barruko aldea, eskuak ez kutsatzeko.

- Saihestu begiak, sudurra eta ahoa ukitzea. Saihestu kontaktu fisikoa dakarren agurra, eskua ematea barne.

KUTSATZEKO EDO KUTSATZE POSITIBOA IZATEKO ARRISKUA DAGOEN KASUETARAKO PREBENTZIO- ETA JARDUKETA-PROTOKOLOA

PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Jarduerarako sarbidea kontrolatzeko neurriak: autobazterketa eta sintomen zaintza aktiboa parte-hartzaileen eta profesionalen artean.

- Duela gutxi hainbat sintoma gehitu dira COVID-19rekin bateragarria izan daitezkeen sintomen zerrendan, eta honako hauek dira: sukarra, eztula edo aire-faltaren sentrazioa eta ezohiko sintomak, hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako minak, beherakoak, toraxeko mina edo zefaleak.
- Haurrak ezin dira joan eta ezin dute jardueran parte hartu COVID-19rekin lotuta egon daitekeen sintomatologiarik badute.
- Haurrak ez dira joango eta ez dute hartan parte hartuko baldin eta kontaktu estuan egon badira gutxienez 15 minutuz 2 metrotik beherako distantzian sintomak zituen pertsona batekin edo haren bizikideekin edo senideekin, edo COVID-19 duen pertsona batekin egon bada pertsonen arteko distantzia gorde gabe, baita sintomarik egon gabe ere, gutxienez ere 14 egunez. Denbora-tarte horretan, jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzurik agertzen ote den jakiteko.
- Hurrek tutorearen erantzukizunpean parte hartu ahal izango dute jardueran, baldin eta kaltebera bada edo kaltebera den pertsona batekin bizi bada, adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko gaixotasun medikoak izateagatik (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, birika kronikoak, minbizia edo immunodepresioa).

2. Transmisioa prebenitzeko neurriak

- Adingabeen tutoreek beren seme-alaben ardura hartuko dute beren gain COVID-19ren aurrean, norbaitek deskribatutako COVID-19rekin lotutako sintomatologia baldin badu (gorago azaldu dugu sintomatologia hori).
- Langile guztien eta parte-hartzaile guztien artean higie-ne-praktika osasungarriak irakatsi, sustatu eta indartzea.
- Begiraleek jarduera modu seguruan egiten dela zainduko dute, ezarritako protokolo eta segurtasun-arau guztiak behar bezala betez.
- Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotzea, laneko higie-ne- eta osasun-arloko agintari eskudunen gomendioei jarraituz.
- Instalazioetan higie-ne- eta prebentzio-neurriak gogorarazteko seinaleak jarriko dira, guztiek jakin dezaten. Zenbait seinale funtsezko gunetan kokatuko dira, hala nola bainugeletan, jantokietan, korridoretan eta ikasgeletako ateetan.

NOLA JOKATU PARTE-HARTZAILEETAKO BATEK COVID-19 DUELA BAIEZTATZEN BADA

- **Segurtasun- eta higiene-neurriekiko konpromiso pertsonala.** Familiak dira beren seme-alaben erantzuleak, eta, beraz, haien ardura da osasun-baldintza egokiak eta higiene- eta prebentzio-arauak behar bezala errespetatzea. Familiak argi izan behar dute ezin dela inola ere ez sintoma edo ondoezarekin joan behar jarduerara.
- **Nola jokatu behar da parte-hartzaileraren batek COVID-19 duela susmatzen bada.** Gaur egun bizi dugun komunitate-transmisioko egoeran, kontuan hartu behar da coronavirusaren sintomekin bateragarriak direnak dituzten pertsonak gaixotasuna eduki dezaketela. Identifikazioa egiteko, parte-hartzaileei behatu egin beharko zaie eta zerbait sumatuz gero, arduradunei jakinarazi. Haur batek COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak baditu, familiari jakinaraziko zaio, gune bereizi batera eramango da eta maskara kirurgiko bat jarriko zaio, familiak jaso bitartean. Langilea bada, bere erreferentziako lehen mailako arretako taldearekin harremanetan jarri eta haren jarraibideak beteko dira.
- **Nola jokatu behar da pertsona batek COVID-19 duela baieztatu eta gero. Osasun-agintarien gomendioei jarraituko zaie une oro.**

UDAL BEGIRALE ETA LANGILEEK NAHITAEZ BETE BEHARREKO HIGIENE ETA PREBENTZIO NEURRIEI BURUZKO DOKUMENTUA.

Neurri hauez gain, osasun-agintaritzak unean-unean ematen dituen protokoloak eta/edo jarraibideak aplikatu beharko dira une oro.

JARDUERA EGIN BITARTEAN BEGIRALE ETA UDAL-LANGILEEK BETE BEHARREKO PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Kasu hauetan ez duzu lanera joan behar:

- COVID-19rekin lotuta egon daitekeen sintomaren bat baduzu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Kasu horretan, Nafarroako COVID-19ren arretarako telefonora deitu behar duzu, eta haiek emandako gomendioei jarraitu. Ez joan pertsona gehiago dauden lekuetara, harik eta egiaztatzen den arte ez dagoela arriskurik zuretzat edo gainerakoentzat.
- Kontaktu estuan egon badazara gutxienez 15 minutuz 2 metrotik beherako distantzian sintomak zituen pertsona batekin edo haren bizikideekin edo senideekin, edo COVID-19 duen pertsona batekin egon bazara pertsonen arteko distantzia gorde gabe. Kasu horretan, jarraipena egin behar da, 14 egunez gaixotasunaren zantzurik agertzen ote den jakiteko.
- Zure erantzukizunpean lan egin dezakezu nahiz eta kaltebera izan edo adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko gaixotasun medikoak izateagatik kaltebera den pertsona batekin bizi bazara (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa). Nolanahi ere, kontuan izan oso arriskutsua izan daitekeela zuretzat eta zurekin bizi diren pertsonentzat.

2. Joan-etorriak:

- Joan-etorrietan, ahal dela, pertsonen artean 2 metroko distantzia gordetzea hobekien bermatzen duten sistemak lehenetsi behar dira.
- Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea etxetik irteten denetik.

3. Jarduera egin bitartean:

- Begiraleek eta parte-hartzaileek maskara garbi bat izan beharko dute eguneko. Udalak emango die maskara hori.
- Ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; maskarak nahitaez erabili beharko dira leku itxietan, eta leku irekietan segurtasun-distantzia mantendu ezin denean.
- Maiz garbitu eskuak 40 segundoz, urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholiko batekin. Bereziki garrantzitsua da eztul edo doministiku egin ondoren, edo espazio partekatuetako jardueren hasieran eta amaieran. Jardueran besaurreak agerian izanez gero, komeni da horiek garbitzea.
- Ondo garbitu eskuak doministiku egin ondoren, baita mukiak zintzatu, eztula egin edo kutsatuta egon daitezkeen gainazalak (dirua, heldulekuakak, etab) ukitu ondoren ere.

Langileek eskuak garbitzea ezinezkoa denean, soluzio hidroalkoholkoa erabiltzen dutela ziurtatu beharko da.

- Erabili eta botatzeko zapi batekin estali beharko dira sudurra eta ahoa ez tul egitean, eta, ondoren, zapia itxitura duen zabor-ontzi batera bota beharko da. Zapirik eduki ezean, ukondoaren barruko aldea erabili beharko da, eskuak ez kutsatzeko.
- Saiatu behar da begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen. Saihestu behar dira kontaktu fisikoa dakarten agurrak, eskua ematea barne.
- Saihestu kontaktu fisikoa dakarren agurra, eskua ematea barne. Ahal den guztietan, segurtasun-distantzia errespetatu behar da.
- Gomendagarria da langileek eskuak lehortzeko erabiltzen dituzten erabili eta botatzeko zapiak paperontzietan edo horretarako propio jarritako edukiontzietan botatzea. Edukiontzi horiek estalkiz babestuta egongo dira, eta, ahal dela, pedal baten bidez irekitzen diren horiek erabiliko dira.
- Higiene pertsonaleko material oro (maskarak, latexezko eskularruak, etab.) errefusean botako dira.
- Ahal den neurrian, jardueran ez dira materialak partekatuko. Partekatuz gero, arreta-neurriak areagotu egingo dira (erabili ondoren, desinfektatu egingo dira).
- Eskularruak erabiltzea ez da gomendagarria, baina bai elikagaiak manipulaten direnean, pixoihalak aldatzen direnean eta garbiketa-lanak egiten direnean.
- Sintomak nabaritzen hasten bazara, ardura handiz jokatu beharko duzu urrutze sozialeko eta higieneko neurrei dagokienez. Halaber, horren berri eman beharko diozu jardueraren koordinatzaileari osasun-zerbitzuekin berehala harremanetan jar dadin.
- Maiz desinfektatu, lanaldian zehar, norberaren erabilerarako objektuak (betaurrekoak, mugikorak, etab.) urarekin eta xaboiarekin, ahal denean, edo, bestela, soluzio hidroalkoholiko batekin. Laneko tresnak ere maiz desinfektatu beharko dira.
- Urarekin eta xaboiarekin, egingarria denean, edo, bestela, soluzio hidroalkoholiko batekin, bai eta lan egiteko erabilitako elementuekin ere.
- Ekipo elektronikoak desinfektatzeko, oihal batekin aplikatutako produktu espezifikoak edo zapi desinfektatzaile bereziak erabili behar dira.
- Ilea jasota eramatea, eta eraztunik, eskumuturrekorik, belarritakorik edo antzekorik ez eramatea.
- Arropa garbia janztea.

KONTINGENTZIA-PLANA ETA INSTALAZIOEN EGOKITZAPENA

Dokumentu honetan jasotakoaz gain, osasun-agintaritzak unean-unean onartzen dituen protokoloak eta/edo jarraibideak aplikatu beharko dira une oro.

Koordinatzaileak garbiketa-ekipoari eta aguazilei jakinaraziko die zer espazio eta instalazio erabili diren, garbitu eta desinfektatu ditzaten.

ESKOLA

- Gela bakoitzean desinfekzio-materiala, tapadun paperontziak eta babesteko material higienikoa jarriko dira erabiltzaileen eskura.
- Eskolako geletan handitu egingo dira aulkien eta mahaien arteko tartekak, eta kutsatzeko moduko gainazalak ahal den gutxien erabiliko dira. Horretarako, behar-beharrezkoak ez diren altzari, material eta apaingarri guztiak estali egingo dira.
- Mahai eta aulkien kokapenak ahalbidetuko du erabiltzaileen artean 2 metro inguruko segurtasun-distantzia mantentzea.
- Talde-jarduerak eta tailerrak. Talde bakoitzari dagokion gelan egingo dira jarduerak, eta talde bakoitzari dagokion begiralearekin.
- Monitore bakoitzak jardueran erabili duen materiala desinfektatuko du.
- Egunero, begiraleak orri bat beteko du, eta hartan, garbiketa-ekipoari adieraziko dio zer elementu eta objektu desinfektatu behar diren.
- Komunak eta konketak. Banaka erabiliko dira, eta arduradun batek gainbegiratuta. Arduradunak desinfektatu beharko ditu, erabili ondoren. Gel-banagailuak eta lehortzeko papera egongo dira eskuragai.
- Jarduera egiteko, leihoak eta atek irekiko dira, eta aireztapen naturala lehenetsiko da egunean behin baino gehiagotan edo etengabe.
- Eskolako patiora sartzean, pilaketak saihestuko dira eta segurtasun-distantzia bermatuko.
- Eskolara taldeka sartuko da, eta derrigorrezkoa izango da “plastikozko oinetakoak” erabiltzea.
- Korridore bakarra erabiliko da ikasgeletara sartzeko.
- Eskola ahalik eta ondoen garbituko da, arreta berezia jarriz eremu komunetan (eskailerak, korridoreak, ikasgelak, higiene-zerbitzuak, etab.). Kutsadura bereziko eremuak ere garbi-garbiak mantenduko dira (komunak/erosoak eta maiz ukitutako gainazalak).

BESTE ESPAZIO BATZUK:

- Joko-patioak erabili ahal izango dira, baldin eta agintari eskudunak horretarako baimena ematen badu eta beti haren jarraibideak bete beharko dira. Erabiliz gero, maizago garbitu eta desinfektatuko dira bertako espazioak zein joko eta instalazioak. Patiora sartzean, taldeko guztiek, begiraleek barne, eskuak desinfektatu beharko dituzte

soluzio desinfektatzailearekin. Prozesu hori guztia berriz errepikatuko da patiotik irtetean.

- Igerilekura joanez gero, osasun-agintaritza eskudunak unean-unean emandako jarraibide eta gomendioak beteko dira.
- Gimnasioan, frontoian, futbitoko pistan, eta abarretan , 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da.